

# Kanpo-homologazioa bertsolaritzan: Txirrita-Basarri etena

Kepa Matxain Iztueta  
Predoc ikerlaria (UPV/EHU)

Artikulu honek XX. mendean zehar bertsoaritzaren baitan gertatutako fenomeno bat aztertu nahi du: jarduna kanpo irizpideekin homologatzeko saiakera. Erromantizismoan zehar Europako hainbat gutxiengo nazionaletan gertatu bezala, euskal abertzaletasunak ere kultur adierazpideetara jo zuen kontzientzia nazionala pizteko asmoz. Aitzolek gidatutako proiektu hark azkar ulertu zuen poesia motz geratzen zitzaioela bere asmoetarako, eta bertsoaritzan aurkitu zuen aldarrikatu nahi zituzten balio eta sinesmenak gizarteratzeko bide paregabea. Txirritak gorpuzten zuen bertso molde zirikatzailearen aldean, estilo zuzenago eta zuriago bat hobetsi zuten. Bertsolari ezin aproposagoa zeukaten eraldaketa gidatzeko: Basarri.

GAKO-HITZAK: Bertsoarritza · Kanpo-homologazioa · Txirrita · Basarri · Utilitarismoa.

## External homologation in bertsoarism: Txirrita-Basarri rupture

The main goal of this article is to analyze a phenomenon that happened in bertsoarism during the 20th century: the attempt to standardize the disciplin with external criteria. Basque nationalism resorted to cultural expressions to awaken national consciousness, just as it happened in many national minorities in Europe during Romanticism. The Basque national project, led by Aitzol, realized that poetry was insufficient to achieve it's goals, and it found in bertsoarism the appropriate way to spread it's values and beliefs. So they promoted a type of bertsoarism that tended towards correction and flattery, far from the provocative style of Txirrita. They had a suitable bertsolari to lead this transformation: Basarri.

KEY WORDS: Bertsoarism · External homologation · Txirrita · Basarri · Utilitarism.

## 1. Sarrera

Euskaltzaleak elkarte «Seigarren Olerti Eguna» antolatzekoa zen Aretxabaletan 1935ean, Aitzolen ekimenez. Ospakizun hura, garaiko beste hainbaten modu berean, euskara eta euskal komunitatea trinkotzeko behar larria zegoen testuinguru batean hasi ziren antolatzen. Poesia-topaketak ez ziren azken helburu, beraz, ezpada euskara suspertzea eta indartzea. Baina Aitzol ohartu zen asmo horretarako motz geratzen zela poesia landua eta herriarengana zuzenago iristeko beste bide bat hartu beharra zegoela (Dorronsoro & Lekuona, 1987). Urte hartan antolatu zuten Olerti Eguna, baita hurrengoan ere, baina sonatuagoa izan zen aldi berean martxan jarritako Lehen Bertso Gudua. Eusko Gaztediren Donostiako Poxpolin aretoan ospatu zen, San Sebastian egunez, eta oholtza gainean lehian aritu ziren 20 bertsolari, hemezortzi gipuzkoar eta bi bizkaitar.

Lehen Bertso Gudua bertsolaritzaren historiako mugarrizat jotzen da, taula gainean elkartu zituelako bertsoa ulertzeko bi mundu. Alde batetik, bertsolari klasikoak zeuden, festa eta taberna giroko testuinguruetan aritu ohi zirenak, Txirrita buru zutela. Haiekin kontrastean, gorbata jantzita oholtzaratu zen 21 urteko Basarri gaztea, ordura arte bertso-munduan zeharo ezezagunak ziren erreferentziak ahotan zerabiltzana. Ezaguna da, «euskara» gaitzat jarrita, Txirritak egun hartan botatako bertsoa (Lujanbio, 1935):

Larogei urte gainean ditut  
nago anketako minez.  
Donostiara etorria naiz  
erren andia eginez  
bi bastoiekin txit larri nabil  
pausorik eman ezinez  
euskara ia aztu zait eta  
erderarikan jakin ez  
maixu batekin eskolan laster  
asi bear det latinez.

Azken puntua kantatzearekin bat, epaimahaian zegoen Aitzol seinalatu zuen, «maisua» aipatzean harengatik ari zela aditzera emanek. Belaunaldien arteko talka bete-betean gorpuzten du Txirritaren bertsoak: alboan zeukan Basarri gazte gorbataduna, euskara jasoan kantatzen zuena, Txirritarentzat guztiz ezezagunak ziren kultur erreferentziak zerabiltzana (Sarriugarte, 2010). Hortaz, «euskara» gaitzat jarri ziotenean, aprobe txatu zuen, umore handiz, egun hartan oholtza gainean sentitzen ari zena adierazteko: lekuz kanpo zegoela (Perurena, 1991b). Izan ere, Aitzolek, poesian bezala, giro berrietara egokitutako bertsokera zuen nahiago, euskal bihotzak suspertzeko mezuz josia, jantzia eta dotorea (Aranbarri, 1999). Eta nor egokiagorik horretarako, Basarri baino (Eizmendi, 1935):

Bertsolariak eman diote  
txeko erriari gorantza,  
Mireio batek edergallutan  
yosia zuen Provenza.  
Ene Yainkoa egin zaiguzu  
guri bear den laguntza,  
al dan azkarren sendatu zagon  
gaixo dan euskel izkuntza.

Bertso horretan aipatzen diren erreferentziak —txekiar herria, Mistralen *Mireio*, Provenza...— zeharo ezezagunak ziren bertso-munduan, baina Euskal Pizkundeak —eta Aitzolek— prentsan propagandarako zerabiltzanak dira. «Abertzaletasunak foralismoari gain hartu beharreko gudua da gaurkoa. Eta Aitzol buru duen epaimahaiak ez du Basarrik ematen dion aukera galdu nahi» (Aranbarri, 1999). Hiru orduko saioaren ondoren, epaimahaiak aho batez hartu zuen erabakia: Iñaki Eizmendi «Basarri» izendatu zuten Lehen Bertso Guduko txapeldun. Eta harekin batera, bertsolaritza ulertzeko proiektu bat ezarri zen.

## 2. Aitzolen proiektu nazionala eta poesia

XIX. mendeko azken hogeita hamar urteetatik hasi eta Errepublikaren garaira arte, mugimendu foruzalearentzat euskara bilakatu zen nazionalitatearen funtsezko osagaia, eta, beraz, sutsuki ekin zioten euskara erabiltzeko eta lantzeko ekimenak antolatzeari. Artean minoritarioa zen euskararen erabilera literaturan, kazetaritza edota zientzian, eta egoera hura aldatzeko bokazioz sortu zen Euskaltzaleak elkarteak: euskara sustatzeaz gain, euskal kultura indartu nahi zuten. Garai hartan, premiazkoa zen euskarara irakurle berriak erakartzea, eta hori lortzeko euskara kultur tresna bilakatu behar zuten kosta ahala kosta.

Sortu eta berehala Lizardi ezarri zuten lehendakari. Alta, 1930ean, Aitzol elkartera biltzearekin bat, eman zuten kultur plataforma bilakatzeko jauzi garrantzitsua. Aitzolek aparteko dohainak zituen gizarte- eta kultura-borrokarako, eta azkar asko lortu zuen sektore euskaltzaleen kezkak kultur proiektu batean bideratzea. Euskaltzaleak elkarteak sustatu zituen irakaskuntza, elebitasuna, kazetaritza eta argitalpen zientifikoak, besteak beste, betiere epe motzeko helburuak lortzeko asmoz, Eusko Ikaskuntzaren baitan sortutako beste erakunde batzuek —Euskaltzaindiak, kasurako— ez bezala. Haien epe luzerako lanketa gisara ulertzen zuten euskara sustatzea. Aitzolek gogoeta eta ekintza bateratu zituen, eta lan eskerga egin zuen sindikalismotik, kulturatik edota hezkuntzatik gertuko sektoreekin batera. Iñaki Aldekoak dioen bezala (2008: 189), «apaizgo konprometitua zen Aitzolena, euskal kulturaren aldeko militantea eta Errepublikak aldeztu zituen balio laikoaren etsaia».

Aitzol ohartu zen gerraurreko testuinguru hiperpolitizatuan euskal nazionalismoak herri-izpiritua berpizteko behar larria zeukala, eta horretarako kulturgintzan jarri zuen berebiziko indarra. Erromantizismo kulturala sakon aztertuta zeukan, eta bazekien Europako hainbat gutxiengo nazionaletan —Proventzan, Katalunian, Belgikan

edota Finlandian, adibidez— literaturak sekulako eragina eduki zuela kontzientzia nazionala pizterakoan. Are, herrialde horietako batzuek independentzia politikoa eskuratu zuten —Finlandiak eta Txekoslovakiak, kasurako—. Poema nazionalaren ideiak berotzen zuen Aitzol, eta hura osatzeko bi ereduri erreparatu zien batez ere: Frédéric Mistralek proventzalez idatzitako *Mireio*-ri, alde batetik, eta Elias Lönnrot finlandiarraren *Kalevala*-ri, bestetik. Nazioaren kontzientzia linguistiko eta kulturala piztu eta herritar gehienak bere axolagabetasunetik atera nahi zituen, era horretara.

Errepublika sortu zeneko, Aitzolek, PNVren komisario politikoa kulturaren, Euskal Herriak bere poema nazionala behar zuela erabaki zuen. Herrien kontzientzia poetek piztu zutela deskubritu zuten nonbait, eta Gernikako arbola erraldoi bat sortu behar zela jarri zitzaion kaskoan (Izagirre, 2019: 13).

Aldekoaren ustez (2008), poema nazionalak danbateko bat izan behar zuen eta herrialde modernoenen txaloa eta onarpena sorrarazi behar zituen. Pizkunde literarioak hasieratik izan zuen poema nazionala ontzeko bokazioa. «Poema horrek bildu behar zuen euskaldunen gogo benetakoa eta bizia, elezaharrez, tradizioz eta folklozez ehundua eta Euskal Herriaren sentimendurik sakonenez blai».

Autoritate gorenaren hartu zuen, Orixek, eta Euzkadi egunkaririk liberatu eta Orixek bidali zuen euskaldunok behar genuen obra ontzera. Gaixoa Orixek, gogorik ez zeukan lan batean izerditzien! Nolako obra, Euskaldunak! Nolako poema nazionala! Lotsagarria, egia esan. Baina ez Orixeren erruz (Izagirre, 2019: 13).

Enkargua Orixeri egin izana ez zen kasualitatea. Hark artea ulertzeko zeukan manera aski esanguratsua da: artearen autonomiaren kontzeptu aski azaleko bati aurka eginez —*l'art pour l'art* delako kontzepziara erreduzitzen zuen— defendatzen zuen arteak moralaren esanetara egon behar duela, bigarrenaren helburua lehenarena baino garaiagoa delako (Iztueta, 2003: 194). Eta posizio horretatik artearen erabilera utilitarista bat egitera jauzi txikia dago. Orixek *Euskaldunak* 1935ean idatzi zuen arren, ez zen 1950era arte argitaratu. Nolanahi ere, Erreterian 1930etik aurrera antolatzen hasi ziren poesia-lehiaketak izan ziren euskal pizkundeak literaturaren alorrean egindako ekimenik garrantzitsuenak. Haien bidez plazaratu ziren Lauaxetaren eta Lizardiren poesia moldeak, estreinakoz euskara literatur joera garaikideekin batera kokatu zutenak.

Poesiari buruzko bi ikusmolde suma daitezke Aitzolengan, biak elkarrenganako talkan. Lehenengoak errespetatzen zituen pertsona kultu batek izan zitezkeen premia intelektualak eta artistikoak; bigarrena, oster, euskara sustatzeko konpromiso sozialari zitzaion leial. Lirika kultua eta jende askorentzat eskuragarria izan nahi duen poesia, aurrez aurre. Bi joera horiek agerikoak dira Euskaltzaleak elkartaren sorreratik bertatik, baina 1933tik aurrera bigarrena gailendu zen. Horren erakusle da nola urte hartako Olerti Egunak bi modalitate izan zituen: kultua eta herrikoa. Aitzolek berak ere ez zuen ezkututzen bere posizioa: «Ondo dago poesia unibertsalista eta giza arimaren adierazpen lirikoa, baina aintzarako eta ospe iraunkorrerako eta aberriko literaturaren berpizterako biderik laburrena euskal arimaren eta fantasiaren alderdi edarrak ezagutzea eta adieraztea da» (Ariztimuño, 1987: 17).

Gauzak horrela, antolatzen zuten kultur ekitaldi orok zeukan, ezinbestean, kutsu utilitarista bat, kulturgintza helburu baino bitarteko baitzen euskal proiektu nazionala indartzeko (Mujika, 1996). Poesiarekin, berdin. Hala antolatu zuen Euskaltzaleak elkarteak I. Eusko Olerti Eguna 1930ean. Poesiarekin lotutako ekitaldiez gain, egitarauan sartu zituzten elizkizunak eta baita euskararen aldeko hitzaldi bat ere, Migel Urretaren eta Antonio Paguagaren eskutik (Estornés Lasa, 2019). Garaiko euskal nazionalismoak bere balioak goresteko baliatzen zituen ekitaldiok beste ezertarako baino gehiago.

Aitzolen kultur fronteak poesia sustatzeko egindako ahaleginak gazi-gozaok izan ziren, ordea. Alde batetik, sekulako lorpena egin zuten: Etxepareren eta Oihenarten garaitik sekula ez zuen izan euskal poesiak Lizardiren, Orixeren edota Lauaxetaren pareko idazlerik. Bestetik, ordea, Aitzolentzat etsigarri zen egiaztatzea literatura-lehiaketetan saritutako poemak zein eskasak ziren, eta gizartean zer oihartzun kaskarra zuten. Euskaraz argitaratutako liburuak ez ziren hirurehun irakurle izatera iristen. Espero zutena baino askoz ere gutxiago zen hori (Aldekoa, 2008). Lauaxeta eta Lizardi ere zaku horretan sartzen ziren. Aitzolen ustez, gehiengoaren kultura linguistiko eta literariora moldatzeko ezinbestekoa zen zentzu ona, diziplina eta etorkortasuna.

Testuinguru hartan ulertu behar da Lizardik poesiaren autonomiaren alde edukitako jarrera irmoa. Lizardi azkar ohartu baitzen premiazkoa zela beste ezerekiko menpekotasunik edukiko ez zuen poesia bat, baita, paradoxikoki, Aitzolek eta haren kultur fronteak bilatzen zituen helburuetarako ere. Alegia, nekez egingo zuela euskarak aurrera kultur esparru autonomo eta sendorik gabe, eta XX. mendeko joera estetikoetan kokatu beharra zegoela lehenbailehen. Horretarako, ezinbestekoa zuten nazionalismoak ezartzen zien zama ideologikotik libratzea eta hizkeraren lanketa estetikoa bilatzea, oroz gain. Lizardiren ibilbidea, beraz, estetika propio baten bilaketa kontziente bat da, eta horrek bihurtzen du mugarri euskal letretan, urte luzetako joera utilitarista bati akabera ematen diolako (Mujika, 1996). Aitzol, noski, ez zegoen gustura posizio haiekin: «Erabaki beza irakurleak ea euskal jarduera literarioa bat datorren gaur egun Euskal herrian politikak, hauteskondeek eta gizarteak bizi duten suharrarekin» (Ariztimuño, 1987: 143).

Gatazka hura bigarren olerki-lehiaketan lehertu zen, Lizardik eskuratutako bigarren saria zela eta. Poesiak eskuragarria eta jende askorentzako behar zuela uste zutenak ez zeuden konforme, eta, haiekin aurrez aurre jarri ziren poesiaren autonomia defendatzen zutenak, tartean Lauaxeta eta Lizardi bera, eta baita, bestelako posizioak eta iritziak erakutsi ohi bazituen ere, Orixe ere. Lehen joeraren aldekoen artean zegoen, esaterako, Jautarkol. Laster, Aitzol bera ere joera hori zilegitzen hasi zen: euskal poesia formaz fina eta lirikoa izan zitekeen, bai, baina herrian sustraitutako irudi eta sentimenduen errepertorio batean oinarritua behar zuen. «Bukatu ziren, beraz, ideien ausardia eta poesiak berez dituen baliabideaz aztertu nahia» (Aldekoa, 2008: 197). Poeta gehienek men egin zioten, eta Lauaxetak berak 1935ean argitaratutako *Arrats-beran* lana joera horretan koka daiteke. Lizardi 1933an hil zenez gero, autonomiaren aldeko ahots gisara pasa da historiara.

Izagirrek laburbiltzen du jarraian gertatua (2019: 5):

Aitzolek eta haren ingurukoek biblia nazional bat nahi zuten. Aberria poetek esnatuko zutelakoan, genero hori bihurtu zuten literaturaren genero nagusia. Lauaxetari errieta eman zioten aire berriak zekartzalako. Herriarentzat idatzi behar zen. Lizardiri ezin zioten errietarik eman, aurkari handiegia zen, baina ikusi zuten urrun zebiltzala poema nazionaletik. Zer egin? Poema nazionala enkargatu.

1935ean Orixek *Euskaldunak* poema folklorikoa amaitu zuenerako hozten hasia zen hasiera batean proiektu hark piztutako gogo beroa. Gainera, gerra zela eta, ez zuen 1950era arte argitaratu. Aitzolek, masa-propagandista trebea zenez gero, ezin hobeto ulertzen zituen gizarte modernoaren funtzionamendu-mekanismoak. Orixeren poemak, ordea, ez zuen lortzen mugimendu haien konplexutasuna bere baitan biltzerik, ez eta gizartean Aitzolek nahi adinako talkarik sorrarazterik ere (Aldekoa, 2008). Beraz, iruditurik poesia jasoa hankamotz geratzen zitzaieela beren helburuak lortzeko, estrategia aldatu zuen.

Gure alderdi zaharrak, PNVk, alderdi politikoek ohi duten interbentzionismo galgarri horretan, ezin zuen herria bere kasa utzi: apaindu, txukundu, dotoretu, errespetuaren ildoan ipini behar zuen, eskolatu eta garaiko pentsamenduan moldatu: bertozaleena masa handia zen, eta bertsolariak arma politiko bat izan zitezkeela ikusi zuen (Izagirre, 2016: 11).

Gauzak horrela, kultur fronte hark bertsolaritzan jarri zituen indar guztiak, poesiak lortu ez zuena, literaturak piztu ez zuena, bertsolariari eskatuz: «Bertsoa kultura kultura izatea, ez herritarra, taberna utzi eta antzokira etortzea. Belodromoa bertsolariak betetzen ahal zuten, poetek ez bezala. Bertsoa, arte gisa, bost axola zitzaien. Eta zaie» (Izagirre, 2019: 13).

### 3. Aitzolen proiektu nazionala eta bertsolaritza

Donostiako Eusko Gaztediren egoitzan Basarriri gertatutako pasadizo batek balio du txapelketa hura zer gogotatik jaio zen ulertzeko (Zubimendi, 1936). Afalondoan Zarauzko gazte kuadrilla bat sartu zen aretora, tartean Basarri zela. Haietako bat bozkariotsu samar zebilen, besteen aldean nabarmenago. Basarrik, mutilaren laineza ezin eramanik, bertso bat bota zion bat-batean (Zubimendi, 2002: 28):

Aizazu gazte, lagun nerea,  
zertan zabilta orrela?  
Ez al dakizu ainbat jaun prestu  
ortik begira daudela,  
era ortako jolasketarik  
gutxi maitatzen dutela?  
Egizu kontu zuk Donostiko  
Euzko Gaztedin zaudela;  
umekeriak baztatu itzazu  
ta ibili gizon bezela!

Bertso haren bidez isilarazi omen zuen, inguruko guztien miresmenerako.

Bertsoaren indarra! Gazte bihurria ez zan gehiago sentitu; lainezak ihestu zitzaizkion; harrotasunak, urtu. Itsas barearen antzeko leun geldi zitzaigun. Bertso batek honelako indarra izanik, zenbat eta zenbat egin lezakete bertsolariak, bide zuzenean jarrita, gure egiaren zabalkunderako! Hau izan zan une artako oldozkuna. Une hartatik hasi zan Bertsolari Egunaren jaiotza (Zubimendi, 1936).

Izagirrearen ustez, anekdota horrek ezin hobeto erakusten du boteredunek bertsolaritza autoritario bat sortu nahi zutela, herrikoia zena ofizialduz. «Horixe izan zen abertzaletasun historikoaren eta sorkuntzaren artean beti egon den arrakala, erroitza, amildegia edo, besterik gabe, ezin uztartua. Alderdiek herria behar dute, baina herri akabatua» (Izagirre, 2019).

«Hala bada, burges ttiki hiritarren nortasun garbizale eta barrentzuria, nazionalisten ametsa, alegia, bertsolaritzak indartuko zuen, nazionalista hiritarren aho guri zuri gozoetara egokituz» (Perurena, 1991b). Euskal poesiak autonomiaren aldeko bideari ekiten ziolarik, bertsolaritzak ez zuen arriskurik sumatzen elite haren interesen atzean. Eta ohartzerako bere egin zuen haiek ezarritako norabide berria.

Aipatzen zutenez, bide jator bat eman behar zitzaion bertsolaritzari. Baina nola egin halakorik? Hasteko, ordura arteko girotik ateraraziz eta nazionalismoaren aldarririk puritanoen mesedetara jarritz. Eta bigarrenik, euskara indartzeko tresna bilakatzuz, bertsolaritza bere soilean sustatu beharrean. Asmo horiek indarrean zirela iritsi zen 1935eko Lehen Bertso Gudua, eta, harekin batera, belaunaldi berri bat agertu zen oholtzan, Basarri buru zela. Perurenaren ustez, Basarrik bazekien egun hartan zertara zihoan, «bere korbata eta guzti, atzetik zebilkion hiritar burges taldetxo haren eredu ereduko ez baitzen kasualidadez azalduko». Epaimahaia nork osatu zuten errepasatzea aski da: Toribio Alzaga, Jose Olaizola, Manuel Lekuona, Joseba Zubimendi, Txomin Olano eta Aitzol. «Ez da dudarik, hor PNVren pentsaera dabilela. Eta bertsolariak oso erne ibiltzen dira, epaileek zer entzun nahi duten, handik aritzeko. Bertsolaritza bildu zuen proiektu kulturala nazionalista zela, garbi zegoen» (Dorronsoro & Lekuona, 1987). Perurenaren irudiko (1991), Basarrik alde aurretik eskuan ekarri zuen txapela. Gainera, Txirritak Aitzol seinalatuz botatuko bertsoari protesta keinuaren traza hartzen dio. «Txirritak bere zaharrean ezezko garbia erakutsi zion, nolabait esan, bere bizitzako bertsolaritza guzia ukatzen zuen proiektu hari».

Txirritaren bertsoaren gaia «euskara» zen. Gainontzeko bertsolariak zuzen-zuzen heldu zioten gaiari, baina Txirritak komentario komiko batekin amaitzea nahiago izan zuen (Dorronsoro & Lekuona, 1987). Perurenari (1991) iruditzen zaio Txirritaren gaiari heltzeko manera gainontzekoena bezain zilegia izan zela, edo zilegiagoa, lehia haren parametroen aurka protesta egiteko aprobetxatu zuelako bide batez:

Bere bizi guzian euskaraz besterik egin ez zuenari euskara mordoiloa erabiltzen zuela esaka zetorren burges taldetxo hari bai ederki bota ere muturrera: maixu batekin eskolan laixter asi biar det latinez... maixu bezala Aitzol behatzarekin seinalatuz, esanez bezala bere barrendik: joan dan larogei urtian bertso kantari, eta ergel auek erakutsiko diate neri orain euskara garbia eta prestua itzegiten eta bertso jatorrak zein diren.

Perurenari harrigarri zaio Txirritak bertsoz salatu zuenaz inork ezer ez esan izana hainbeste urtean. Aldiz, haren ustez, Txirritaren ifrentzua, zurikeriaz mozorrotutako ildo berria, Basarriren ondorengo bertso honek gorpuzten du (Iriondo, 2006: 20):

Uso zuri bat inguratu zait  
goizian egun argitzez.  
Alaitasuna artxek sortu dit  
jaun maitiak, bere itzez.  
Eta ni oraiñ zuen aurrean  
nauzute pozaren pozez,  
lendabiziko, entzule onak  
agur danori bihotzez.

Herri txikietako jendeak Txirritaren umorea nahiago bazuen ere, donostiar jende dotorexeagoak maila baxukotzat jotzen zuen, eta Basarriren estiloaren alde egiten zuten (Dorransoro & Lekuona, 1987). Baina Perurena (1991) ez dator bat denborak ezarri duen errelatoarekin, eta oker handitzat du pentsatzea Basarrik eta hura aldareratu zutenek atera zutela bertsozaritza irteerarik gabeko bide estu batetik:

Kamio zabaletik bidexigor estura, inork bada eta, Basarrik sartu zuen bertsozaritza, eta haren segidoreek. Ba ote, izan ere, bertsozaririk, bai esamoldez bai irudimenez Basarrik baino ugaritasun gutxiago erakusten duenik. Herri kirolak, Euskaltasuna, Erliño/Gizatasunak, eta hamaika kulturgizonen omenez jarritako bertsoak bai, baina, bertsozalea harrituko duen irudi eta berrikuntza gutxi!

Gehiago dio: Aitzolen proiektuak desbideratu zuen bertsozaritza lehengo bidetik. Bertsoa, beste kultur diziplina batzuen mailara homologatuz, tabernako testuingurutik atera behar zela, eta jende prestuarengana iristea lortu beharra zegoela esanez aritu ziren haiek anomalia bat eragin zuten jardunean, eta, azkenerako, zera lortu zuten: bere ingurunetik ateraraztea eta neurritz kanpora puztea (Perurena, 1991b). Horretarako, Basarriren irudia erabili zuten, bere baitan biltzen zituelako modako izateko bi elementu: orduko gazte askoren joera aberrikoa eta zibilizazio garaikideago baten aldeko eskakizuna. Eta Lehen Bertso Guduan txapela irabazi ondoren, Txirritaren belaunaldia zokoraturik bezala geratu zen, Lekuonaren irudiko (1982: 213). Izagirre ez dago ados (2016: 10): «Zein belaunaldik zokoratu zuen Txirritaren belaunaldia ordea? Ez zegoen belaunaldirik, Basarri zegoen, beste inor ez, Gipuzku Buru Batzarraren aginduetara». Haren ustez, Lekuonaren errelato hori «gezur meta baten gainean eraikia» da, eta aipatzen du inork ez zuela gogoan Basarriren bertsoarik 1982an —orduan argitaratu zuen Lekuonak *Ahozko Euskal Literatura*—. Aldiz, Txirritaren bertsoak hainbat artistak musikatu zituzten ordurako, Xabier Letek eta Antton Valverde kasurako —1976an argitaratu zuten *Txirritaren bertsoak* bilduma—. Baina, batez ere, beste zerbait da begi-bistakoa Izagirrerentzat (2016: 11):

Bertsozaleak, bertsoa maite zuen publikoak Txirrita entzun nahi zuen 1935ean eta 1936an! Makazaga inprimatzaileak, *Bertsolariya* abiatu zuenean, Errepublikara garaian, Txirritarengana jo zuen, eta Txirritaren eskolakoengana. Ez zuen Basarriren kolaboraziorik nahi! Ez zitzaion batzokietan saltzea interesatzen, kalean saltzea interesatzen zitzaion!



Hortaz, Izagirrek ez du ontzat jotzen Basarriren garaipena: «Basarrik txapelketa irabazi zuen artean inoiz bertso epaile izan ez zirenen aurrean, baina lehia ez zuen irabazi, lehia, bertsoen transkripzioak dira lekuko, Txirritak irabazi zuen». Finaleko emaitza ofizialak ez zuen bat egiten bertso-komunitatearen irizpideekin:

Txirritaren eta Basarriren arteko etena [...], dozena bat jauntxo giputxek ongi prestatutako etena izan zen. Gero, dudarik gabe, orduan puri purian zegoen hiri giroko nazionalista abertzale prestu garbizaleen mugimendu gazteak aldaketa inposatu hura oso ongi bereganduko bazuen ere. Nola ez zuen ba bereganduko, bere ideologiarekin bete betean zetorren eta! (Izagirre, 2016).

Arreta pizten du Aitzolek lehen bertso-txapelketa haren sorrera-giroa deskribatzeko duen moduak. Bistan denez, bertsolaritza bera baino areago, beste kezka batzuk zituen buruan garai hartan:

Azkenaldi larrira espainiar diktadurak zekarkin bertsolarien joku eder hauxe. Betirako igartuko ote zitzaigun euskal landarea? Koplakarien hil behar honek larri genkarzkin Euskatzaletakoak. Alegiko errotan alkartu ginan Lizardi zana, Jauregi Olerkaria, Labaien antzezlaria eta Erauskin bertsolaria, gaitz horrentzako sendagairik aurkitzen ote genduan edo. Hango asmoak zerbaiterako izan ziran nonbait (1987: 113).

Paradoxikoa da nola Aitzol bertsolaritzaren desagerpenarekin kezkatuta zebilen, noiz eta justu bertsolaritza osasuntsu zebilen garai batean. «Bertsolari batek ere ez du sekula bertsorik jarri bertsogintza galtzeko beldurrez, albokarien artean sasoi batean sentitu zuten moduan» (Paia, 2011: 104). Jauntxo haien planari historiak arrazoia kendu diola uste du Segurolak (2013):

Bata (Txirrita) barregarri utzi zuten orduko irizpide eguneratuek, eta bestea (Basarri) gixongazte jantzi, sakon, poetiko moduan gelditu zen. Gaur inork ez du gogoan gazte haren bertso bakar bat ere, eta orduan barregarri gelditu zenaren aitemenak ez dira oraino ixildu sartuagatik lurpian, eta nekez ixilduko dira beste larrogei urtian.

Argi dago, beraz, txapelketaren oinarriak Euskaltzaindiko, elizako eta EAJko kultur fronteko sektoreen artean antolatu zituztela. «Aitzolek berak bakarrik hirurak errepresentatu ahalko zituen» (Paia, 2011: 104). Aitzolek eta Eusko Folkloreko talde bertsozale hark bertsolaritza bere herri-giroan indarberritu izan balute, deus aurpegiratzekorik ez lukeela dio Perurenak. Aldiz, bertsolaritza herri-giroan bizitzeko eta hiltzeko sortua zela ikusirik, neurriz gaineko balioa eman eta literatur adierazpiderik prestuena, gizalegetuena eta hiritarrena bihurtu nahi hartan huts egin zuen talde hark, haren irudiko. Gainera, aipatzen duenez, orduan sortutako giroaren tesi okerrak lirateke bertsolaritzan geroztik ugaltzen joan direnak, nahiz eta herri erneak ongi jakin gizatasun prestuak deus ikusteko gutxi duela bertsolari onekin eta historiak eman dituen beste artista on gehientsuenekin ere (Perurena, 1991b).

Perurenaren tesiak eror daitezke inoiz Basarriren aurreko bertsolaritzaren halako idealizazio batean, baina aski argumentu zorrotzak eskaintzen ditu XX. mendeko bertsolaritzaren bilakaera ikertzeko. Izan ere, bertsolaritzaz eta esentziez hitz egiten denean, beti iragana hartzen da jomugan, baina benetako erronka da naturalizazio

orori ihes egitea: bai Basarriren aurreko tabernako testuinguruko bertsogintza harenari, baita gaur egunekoari ere. Beraz, ezinbestekoa da egungo bertsogintza zer ondarearen gainean eraikita dagoen gogoetatzea, eta, bide batez, kontuan hartzea zeintzuk izan ziren Aitzolen proiektuak, Basarri buru zela, bertsolaritzari eragindako aldaketak. Zehatz ikertzen hasiz gero, aldaketa horiek distortsioak eragiten baitituzte bertsolaritzaren funtsezko ezaugarri batzuetan.

#### 4. Basarriren bertsolari-proiektua

Basarrik askotan hartzen zuen hizpide 1910-1930 bitarteko bertsolaritza. Haren arabera, zeharo hondatutako jarduna zen, bertsolariak lokaztegitik lokaztegitara ibiltzen ziren, lotsarik gabe eta axolagabekeriaz: «Ire andrea olakorekin ibiltzen dek; olako erritan utzi itukan zorrak pagatu bear dituk lenengo. Atzo zein ukullutan lo egin dekan jakinda niok. I aiz Gipuzkoa'ko alper eta moskor danen kapitana. Ik dekan abildade bakarra lapurretakoa dek» (Eizmendi, 1984). Bere idatzietan, hobetu beharreko hainbat alderdi zerrendatu zituen.

##### 4.1. Bertsolariak hezi beharra

Basarriren ustez, XX. mendearen hasierako bertsolariak gizarteko beheko mailako jendea ziren, beren parekoei barre eginaraztea beste helbururik ez zutenak. Eta Karmelo Etxegarai bertsolariak gutxietsiz idatzitako pasarte ezagun bati keinu eginez, gehitzen zuen:

Miñ artu izan det Euskalerriko jende ikasiak, Euskalerriko jakintsuak, bertsolaritza ankapean zeukatela jakinda; bertsolariak euskerarentzat kaltegarri zirala, jakintsu oietako batek baño geiagok idatzi izan zutela jakinda [...]. Enaiz batere arritzen, ordea, garai artako bertsolarien jokabidea ikusita, jende eskolatuak begi onez ez ikustea (1984: 58).

Iruditzen zitzaion bertsolariak bazuela egiteko sakonagorik biraoak eta ateraldi merkeak botatzera mugatzea baino, sorterriaren eta hizkuntzaren alde. Eta, zorionez, denborarekin ikasi duela zein den bere tokia. Kontuak kontu, ez die errurik botatzen lehengo bertsolariei:

Aiek etzuten batere errurik eta kulparik. Etzuten izan eskua nork luzaturik; etzuten izan egiazko bide erakuslerik. Bazuten etorria ta almena, bazuten argitasuna. Bidetxigor txar batean sartu ziran bein, eta kamio zabalera irten gabe gelditu ziran [...]. Gaur bizi balira, beste ollar batek joko lieteke kukurruku; erriak elituzke arlote parregarrizat artuko, doai bereziz jantzitako gizon jatortzat baizik. Amairu erri ez baña, berreun serbituko lituzteke urtean (1984: 62).

Izagirrearen irudiko (2019: 2), Basarrik lehengo bertsolarien ahotan jartzen dituen esaldi horietako gehienak Fermin Imazek eta Txirritak elkarri bertso-paperetan botatakoak dira, eta gerora Antonio Zavala jesuitak «eskandalurik sortu gabe» Auspoa sailean argitaratuak.

## 4.2. Bertsozaleak hezi beharra

Bertsolariek baino gehiago, heziketa entzuleek behar zutela uste zuen Basarrik. Asko kezkatzen zuen haien ikasketa-mailak.

Guk ikusten eta nabaitzen genduenau au zan: erri batera joan, balkoitik kantatzen asi, ta norbere gustorako bertsozik mardulen eta ederrena kantatu, ta entzuleen biotzetara iritxi ez [...]. Urrengo aldian lau astakeri esan, aurreko bertsoaren amarretatik bat balio etzutenak, eta jende dana txaloka ta gozamenean [...]. Erria zegoen ezi bearra. Gaizki esaka ari etzana, astakeririk jaulkitzen etzuen, etzuten bertsoaritzat artzen garai batean (1984: 117-118).

Aipatzen zuenez (1984), bertsolariek hiru poto egin arren tentelkeriaren bat botaz gero nahikoa izaten zuten entzule haiekin. Eta, kontrara, bertsolarien ahotik sekulakoak eta bi entzuten ez baziren, entzuleek ez zuten gozamenik izaten. «Taberna zulotan eta sagardotegietan bazituzten entzuleak, baña jende prestua bildu ziteken tokietatik etzan deirik izaten». Beraien eskutik gauzak aldatu zirela iruditzen zitzaion, ordea: «Joan dan ogeitamar urte ontan erriak asko ikasi du bertsoari bere balioa ematen: ona, erdipurdikoa ta txarra bereizten».

## 4.3. Bertsoa elitizatu beharra

Bere belaunaldiaren garaipen handitzat zeukan Basarrik bertsoaritzaz langileklasearen testuinguruetatik elitearen inguruetara gerturatu izana.

Len, jende ikasia ta edukatua bertsoariengandik nundik igesiko ibiltzen zan. Gaur, berriz, bertsolarien atzetik dabil eta oiekin gozatzen du, beste edozeñekin baño geiago. Jatetxe fiñ, plaza, teatro, zine-saloi ta abarretan, bertsoari jaiak antolatzen dira noiznai. Eleiz barrutan kantatzera ere iritxi dira gaurko bertsoariak. Etzegoen orain berrogei urte olako zerbait esan besterik! (1984: 59).

Basarriren eta bere belaunaldikideen ekimenez, beraz, goiko lorategira irten zen bertsoaria. Eta aipatzen duenez, hala izan behar zuen, hori zen herriak nahi zuena.

1935 eta 1936'garren urtean Donosti'n ospatu ziran bertsoari txapelketek ere egundoko ona egin zuten. Orduetik asi ziran bertsoarientzat deiak batetik eta bestetik. Geroztik ala jarraitzen duo Gaur ez dago euskal jaialdi bat bertsoari gabe. Ezertan aurrerakorik egin badegu, ontantxe egin degu. Dagokion mailla eman diogu euskaldun bertsoariari (1984: 135-136).

## 4.4. Errima zabaldu beharra

Basarriren proposamen formal agerikoena errima zabaltzeko beharra izan zen. Haren ustez, garaiko bertsoaritzaz asko mugatzen zuen ahalik eta senidetasun handieneko puntuak erabili beharrak. Azken puntuaren arteko hosiadetasunaz ari zen. Zer da desiragarriagoa, hosiadetasun hertsia ala hosiadetasun nasaia? Basarrik argi zeukan: hosiadetasun hertsia alderantziz, puntuaren dotoretzia gaiaren kaltetan suertatzen da (Joan Mari Lekuona, 1992).

Puntu bat, adibidez, «atean» esanaz bukatzen badegu, urrengoak derrior

«katean», «kaltean», «batean», «artean» edo olatsu izan bear dutela uste degu. Lege onek bideak itxi ta trabak jarri besterik eztingu egiten [...]. Azkenengo bi silabetan «ean» ori entzutea bearrezko da bertso tankerik izango badu, baña «atean» itza ondo uztartua legoke emen dijoazen auek guziekin: «artean», «artzean», «zarrean», «kalean», «lanean», «astean», eta abar (1984: 23).

Arrazoitzeko, poetak eta mugaz bestaldeko bertsolariak hartzen zituen hizpide. Batzuek zein besteek errima askeago erabiltzen zuten, eta Basarriri iruditzen zitzaion emaitza hobeia lor zitekeela era horretara, pentsamenduaren muina azaltzeko toki lasaiagoa zeukatenez gero.

Ixtura onek, juxtunai onek zer kalte egiten digun eztago adierazterik. Egoak mozten dizkigu, ankamotz uzten gaitu. Esan bearreko erdirik eztegu esaten jokabide oni jarraituz. Gaztelera, au da, kastellanoz, «tendría», «hacia», «querría», «sabía», «manía» ta beste milla olako oso legezko puntuak dira. Azkenengo «ía» ori entzun ezker, ezin da obeto datoz belarritarako. Euskal bertsolariok bide au artu bearrak gaude ezer onik egin nai badegu. Guk artua daukagu gure aldetik (1984: 24-25).

## 5. Basarriren proiektuari kritikak

Basarririk bertsolaritzaz emandako iritziak —gehienak *Bertsolaritzari buruz* liburuan bilduak— mugarri dira diziplinaren historian, bertsolaritzaren eredu jakin bat hain modu garbian aldarrikatzen lehendabizikoa izan zelako, eta, gainera, neurri batean eskola egin zuelako, garaikideek zein hurrengo belaunaldiek errespetatu zutenez gero. Alta, badira zantzu batzuk pentsatzeko Basarriren ekarpena ez zela gizarteko sektore guztien aldetik berdin onetsia izan.

Hasteko eta behin, balirudike garaiko kultur eliteak goratzen zuela Basarri herri xeheak baino gehiago. Haren aurkako testigantza zuzen askorik ez dagoen arren, Uztapide bertsokidearekin sarri alderatu izan da, aditzera emanaz gehiengo handi batek nahiago izaten zuela haren freskura Basarriren estilo zuzenaren aldean. Hala dio Txomin Garmendiak: «Uztapide ahotik ahora kantatzeko nik ezagutu dudan onena zen. Basarri hiru edo lau bertso kantatzeko gai bati hobeia zen, hark goiko maila harrapatzen zuen, baina ahotik ahora, herri mailan, nik ezagutu dudan onena Uztapide zen». Zulaikak ere antzerako zerbait aipatzen du (2003): «Entzuleek nahiago izaten zuten gehienetan Uztapide “apala” baina dotorea, nahiz eta honek ez zuen inoiz Basarriren bertso kultista eta moralizatazaileak botatzeko gaitasunik erakutsi». Garaiko testigantza urriek ere hala erakusten dute. Esanguratsua da, adibidez, Antonio Valverde *Ayalde*-k *El Diario Vasco*-n idatzitakoa —ez testuak berak aparteko interesa duelako, baizik eta bertsozaleek Basarrireko zuten pertzepzioaren berri ematen duelako zeharka—:

Es curioso como perviven las ideas y prejuicios antiguos. A Iparragirre, los rústicos de su tiempo lo tenían por «señorito» porque cantaba con estilo y hacía música. Pues bien, esta misma tarde, un vigoroso abuelo de Oyarzun, comentando el tan sonado torneo último y declarandose acérrimo partidario de Uztapide, me decía, en tono entre admirativo y despectivo, de Basarri: «Ori solfeo-ko gizona da» (Valverde, 1963).

Basarrik azkar erantzun zion artikulua hari, haserre betean:

El amigo Ayalde puede comunicar al viejo Mathias y a todos los habitantes del Globo que «Basarri», desgraciadamente, es un ignorante en solfeo y música [...]. También andan equivocadísimos quienes me creen un hombre culto, un hombre de formación, un intelectual [...]. Sepan todos los que me leen que «Basarri» solamente pisó la escuela hasta los once años de edad. He podido comprobar que aún existen quienes opinan que el verso tiene que ser eso; que el bersolari ha de ser una especie de bufon, el hazmerreir de las gentes. Muy negro veo el horizonte de nuestro país si la tendencia de las gentes es favorable a este criterio [...]. Caros lectores míos, «Basarri» ha finalizado su obra. No se los años que me tendrá reservados el bondadoso Dios, pero he tomado la radical determinación de no participar nunca más en un certamen o en un campeonato de bersolaris (Eizmendi, 1963).

Bi artikulua horiek giroa gaiztotu zuten, eta bataren edo bestearen aldera posizionatzen hasi ziren bertsozaleak (Lasa, 2008):

Bi «bando» sortu ziren Uztapide zein Basarriren aldekoak. Ika-mika planteatu zen eran egiazki bazeukan morbo punturik. Bi titularretan labur zitekeen: diszipuluak maisua garaitu du edo ezjakinak ikasia garaitu du [...] iskanbilla aski erradikalizatu zen eta bertsozale gehienak batera edo bestera lerrokatu ziren; apenas geratu zen taberna zuloetan, kalean, prentsan... iritzia eman ez zuen inor! (879).

Bi bando bai, baina Basarriren aldekoak gutxiengoak ziren. Garziak ere hala dauka idatzita (Garzia, 2000: 441):

El bertsolarismo de Basarri es más intelectual, por decirlo de algún modo. Responde, como bien ha indicado Juan Mari Lekuona, a un proyecto bien definido. La admiración del aficionado medio, sin embargo, se dacanta más por Uztapide.

Zepai bertsolariak ere hala erantzun omen zion gai-jartzaileari saio batean, hark ondorengo puntua jarri zionean: «Zein da bertsoleak onena / gure probintzian?» (Perurena, 1991a):

Manuel Uztapide  
nere iritzian.  
Ala juzkatzen dute  
Gipuzko guztian,  
naiz Basarrik premia  
atera Fraintzian

Azkenik, Perurena urrunago doa. Aipatzen duenez (1991), baserri inguruko bertsozaleek Uztapideren alde egiten zuten, ohartzen zirelako Basarrik zein hankatatik egiten zuten herren:

Basarrik kaletar eskuxirien eta nekazari eskulatzen arteko zubia egin nahi izan du, beti ezinezko izan den zubi fantasma bat. Frustazio hori ederki nabari da bere bertsoetan eta esanetan. Alde horretatik, gure bapateko bertsolaritzaren eremuan izandako bertsolaririk arrotzeta eta desegokiena Basarri izan da, inolako zalantzarik gabe; hain zuzen ere, bertsolaritzak inoiz berezkoak izan ez dituen zurikeria guziak beregandu baititu.

Aipatutako testigantzetatik ondoriozta daiteke herriak oro har ez zituela onartu Basarrik bertsozintzari eragindako aldaketak, nahiz eta hori adierazteko argumentazio-tresna askorik ez izan —hortik «Uztapide vs Basarri» konparazio ustiatua, Basarrik irudikatzen zuenaren aurka egiteko modurik errazena kantukide izaten zuen harekiko atxikimendua adieraztea balitz bezala—. Zehatzago aztertzeko modukoak dira Basarriren proiektuak jasotako kritikak.

### 5.1. Bertsolariak hezi beharra

Basarrik behin eta berriro esaten zuen lehengo bertsolariak herri xeheari barre eginaraztea beste zereginik gabeko arlote batzuk zirela. Perurenaren ustez, egiatik baino gehiago du gezurretik baieztapen horrek: «Bertsolaritzaren historian denetatik izandu da aldiro: bertsolari erdimoxkorretik hasi eta bertsopaper jartzaile erdipoetenganaino. Eta Basarrik esaten duen garaian ere bai». Are, nabarmentzen du bertsolaria oso gutxitan jo izan dela arlote barregarritzat, eta bertsozaleak beti begiratu izan diola lilura bereziz bertsolaririk miserableenari ere. «Bertsolariak sortzen duen lilura eta xoramena gizatasunarekin nahastea, horixe da, Basarrik geroztik egiten ari den zorakeriarik haundiena».

Antzera iruditzen zaio Izagirreri ere (2019: 5). Haren ustez, Basarriren aurreko bertsolariak —Pello Errota, Udarregi, Gaztelu eta beste hainbat— ez ziren «tabernako edo sagardotegiko» bertsolariak, bertsolari osoak baizik. Denetarik egiten zuten: «Gaur zurrutean, bihar misioak kantari, hurrengoan ekaitzak itotako arrantzaleen aldeko paperak ateratzen». Txirritak bere garaiko gai pila bati kantatu zion, eta Pello Errotak Arantzazuko Amabirjinari eskaini zizkion hainbat bertso sorta. Udarregik ere sagardotegian adina denbora ematen zuen elizan sermoiak entzuten, bere hizkera aberastu nahian. «Lokatzetan baldin bazebiltzan, abarkak kendu eta espartin garbiak janzen ere bazekiten, jakaren maiztua disimulatzeke».

Gainera, Izagirreren ustez, aurkariari esan ahalakoak esateak ez du zertan «lokatzetan sartzea» esan nahi. Tolosako Ramos Azkaratek idatzitako bertsoak jartzen ditu adibidetzat. Aurkari politikoei botatako zirikadaz josita daude haren bertso sortak: «Ganbelazale alferra, maketo egiazkoa, piztien apezpikua, trinpiti-tranpaz betea, bi doinutako kanpana, gezur fabrika, zer mesede denak zintzilik baleude pago batetik, Sagasta masoiaren pelukarentzat a zer nolako orkila, Madrildo kutxa handiko turroiaren jalea; nahiz hil naiz bizi, nahi det odoldu ezpata luzbelztarrekin» (2019: 6). Azkarateren lanak erakusten du bertsoek satirarako daukaten potentziala, txikitoek, toberek eta galarrotsek bezainbat.

Perurenari iruditzen zaio bertsolariak nonbaitetik ihes egin behar badu, mezu moralizatzaileak botatzeko tentaziotik egin behar duela, zer esanik ez garaiko moral ezarria erreproduzitzen duten mezuak badira. Kontrara, herriak gutxien espero duen hura, harridura pizten duena, kantatzea da bertsolariaren erronkarik handiena. Basarriren ereduak kontrakoa hauspotuko luke, ordea. «Inoren gizatasuna arriskuan jartzeko bildurrez “zer komeni dan ixiltzea eta zer komeni dan kantatzea” buruhausketan dabilen bertsolaria, ez da bertsolari».

Izagirrek (2016) zalantzan jartzen du Basarrik hainbestetan aldarrikatu zuen errespetua. «Errespetuzko jokabidea: norekiko? Bertsoarekiko ala autoritatea-rekiko?». Haren ustez, Basarrik aldarrikatzen zuen errespetuak esan nahi zuen garaiko pentsamolde nagusia mikrofonotik ozen erreproduzitzea. Era horretara, bertsolaria ideologia baten bozeramaile bihurtzen da, eta aldarrikatzen ditu Jainkoa eta Estatutua, Eliza eta zintzotasuna, edota Aberria eta ohitura garbiak.

Arestik ere Basarriren operazioa kritikatu zuen behin baino gehiagotan. Bertsolariak sagardotegitik atera behar zutelakoa gutxi batzuek sartutako ziri galanta iruditzen zitzaion (Aresti, 1966):

Hasta la saciedad nos han repetido (quizá el que más fuerte y más veces nos lo ha repetido ha sido el ex campeón de bersolaris Ignacio Eizmendi, nuestro nunca suficientemente ponderado Basarri) que por fin los bersolaris salieron «sagardotegitxulotik», del agujero que es la sidrería, y se aventuraron en empresas más encomiásticas [...] lo peor de todo es que nos lo creímos; y que somos muy pocos los que nos hemos dado cuenta de aquel espejoso engaño

## 5.2. Bertsozaleak hezi beharra

Hona Basarriren beste ohiko kexu bat: zenbait plazatan bertsorik sakonenak eta baliotsuenak esker onik jaso gabe pasatzen zirela, eta, aldiz, bertsorik arinenak eta jostalariarenak txalotzen zirela gehien, akatsez josita egon arren. Horregatik aipatzen zuen bertsozaleak hezi beharra zegoela, maila handiko bertsoak zer ziren ikas zezaten. Ikuspegi horrekin ez dago batere konforme Perurena (1991):

Bapateko bertsolaritza hori beti horrela izanen da. Bapateko bertsolaritza entzuleak parra edo negarra eraginen dioten bertsoak nahi izandu ditu beti; bihotza ukituko dioten bertsoak edota irria erneko diotenak. Bi mutur horien erdira joaz botatuko bertsorik serioena, gizatarrena, eta jatorrena baino mila bider gehiago estimatuko dizu bapateko bertsoentzuleak irria edo negarra eraginen dion bertsoa, nahiz hain ongi neurtua, kalkulatu, eta ortografiatu ez izan.

Izagirrek ere (2019) antzera pentsatzen du: «Herria mesprezatzen zuela esango nuke, herria leziatu beharreko arrote multzo bat kontsideratzen zuela: Txirrita, adibidez».

Arestik ere egin zizkion ildo horretako kritika batzuk. Esanguratsua da, adibidez, Basarriren *Nere Bordatxotik* bertso-bildumari keinu eginez (Basarri, 1992), idatzitako «Nire ofizinatik: Basarri bertsolariari» artikulua. Bertan, Txirritaren eskolari bizkar ez emateko eskatzen dio (Aresti, 1963):

Nire iritzian, bertsolaria izateko, eskola orretakoa izan bear da [...]. Basarri ere eskola orretakoa da, eta ez apurrena. Eztakit nik orain ze aize biurrik itzuli duen pauso oker orretara, baña Basarrik Txirritaren eskola ukatzen badu, bere burua ere ukatuko du.

Areago, Aresti kezkatuta zebilen Basarriren eskutik sortzen ari zen bertsolaritza berri harekin, eta hainbat artikulutan landu zuen gaia (Aresti, 1966):

Los bersolaris van perdiendo su básico carácter, que no es, en contra de lo que tanta gente cree, la improvisación [...], sino que dicho básico carácter es su calidad de poetas sociales, de críticos de la sociedad, de denunciadores de vicios y corrupciones [...]. Ya no son pueblo, ya están más arriba. Ya quizá por eso [...] el pueblo empieza a aburrirse con ellos.

Arestiri ez zitzaion kasualitatea iruditzen Bertsolarien Biltzarrak urtero Markinan egiten zuen bilera komentu batean izatea.

Actualmente los bersolaris hacen su reunión anual en el convento de los Padres Carmelitas de Marquina. A semejante reunión no hubieran arrastrado a Txirrita ni atado (o a menos que le hubieran dado una buena soldata). Txirrita se hubiera quedado en la sidrería. Desde que los bersolaris se han acercado al convento por dejar la sidrería, no creo que haya bersolari que se dé cuenta de cuál es su misión, de por qué y para qué compone y canta. Se dedican a hacer reír o hacer llorar, olvidándose de que lo que tienen que hacer, es hacer temblar [...], los bersolaris viejos no me dejan elección, me tengo que quedar con ellos o quedarme sin nadie (Aresti, 1966).

### 5.3. Bertsoa elitizatu beharra

Garai batean jende ikasia bertsolariengandik ihesi ibiltzen zela nabarmendu ohi zuen Basarrik, harik eta bertsoa mailaz igotzea lortu zuten arte. Bere —eta bere belaunaldikide batzuen— lorpenik handientzat zeukan hura. Perurenarentzat, ostera, lorpena baino porrota da bilakaera hori. «Basarrik aipatzen duen jende ikasia edo edukatua, jauntxoen aldekoa izandu da beti, eta jende klase honek bertsolaririk ikusi nahi ez bazuen, hain zuzen ere, horrexegatik zen: beren gizatasun prestua salatuz gutxienik uste zutenean bertsolariek egiak muturrera botatzen zizkielako» (1991). Azaltzen duenez, herri xeheak egin ez zezakeena egiten zuten bertsolariek, eta horrek, noski, sekulako plazera ematen zion bestela isiltzera kondenatutako populuari. Gisa berean, jauntxoek ezin eraman zituzten bertsolariak: ez arlote barregarriak zirelako, egia deserosoak jaurtitzen zizkieten bakarrak zirelako baizik. Hortaz, jauntxoen interesentzat ezin proposagoa izan zen Basarriren jokaldia, disimulu handiz, tankerako mezuak isilik gordetzera bultzatu zuelako bertso-mundua, jauntxoen gizatasuna zuritzen zuten aldarrien mesedetan.

Ikuspegi horren kontrara, Lizardik —«zarauztar unibertsalak»—, hil aurretik *Argian* idatzitako azken artikuluan, zer hizkera molde zen egokiena eztabaidatzen ari zela, ez Mujikarena eta ez Jauregirena, bere eredia Txirrita zela aitortu zuen, herritarrena zelako. «Ez dut uste bi idazleok baino modernoagoko eta eskola handiagoko askorik geneukanik garai hartan, eta hala ere, ez zioten muzin egin “era zaharreko” bertsokera satirikoari. Aitzitik!» (Izagirre, 2019: 7)

### 5.4. Errima zabaldu beharra

Orduko bertsolariei Basarrik egozten zien beste gabezia bat zen errima hertsiegia erabiltzea. Haren ustez, errimaren hoskidetasunarekin tematzeak bertsoa kaltetzen zuen, eta arrazoiketa mugatzen, errimarekiko morrontza zela-eta esaldiak gehiegi behartu beharrean kausitzen zelako bertsolaria. Baieztapen hori ere zalantzarria



da, ordea. Batetik, errima estu erabiltzeko moda hura nondik zetorren ez du zehazten. Eta pentsa daitekeen arren Gipuzkoako hainbat bailaratako bertso-estiloaz ari zela, begirada zorrotzago batek erakusten du auzia ez zela hain sinplea. Esaterako, Basarriren aurreko bertsokeraren errepresentazio goren izan daitekeen Txirritak ez zuen errima bereziki hertsia erabiltzen. Zergatik ote? «Burua bestelako jolasetarako libreago eta erneago edukitzeagatik, seguru asko. Hala, puntu-buruetak asko gramatikalki horietakoak dira, atzizkiez baliaturik moldatutakoak, alegia» (Garzia, 1997). Denetan ezagunena, hainbestetan errepikatzen zuen segida hau: urtian-partian-lurpian-artian.

Egañak ez du uste errima hertsia muga denik, ezpada kontrara. Errima sortak buruan garden eta ongi sailkatuak dituelarik egiten omen du bertsotan ondoen, esan nahi dituenak errazen eta zehatzen esateko baliabide gehiago dituelako (1998: 64).

Nahiago diat halako errima jakinera iritsi beharra, moldatuko baitut esaera eta esanahia arira, errimak mordoia, baina mordoiloan, eduki baino. Errima-neurriak kendu edo lasaituko balizkigute haur jaio berriak ginateke, ez zapi ez amaren bularrarte. Hargatik jartzen diat dudana Basarrik aspaldian zioena, berriki Alexis dezimista kubatarrari ere entzuna. Alegia, errima lasaitze aldera, askoz ere gauza gehiago eta sakonagoak esan ahal izango genituzkeela. Ezezkoan nagok ni.

Dena dela, auzi honetan ez du ematen Basarriren asmoak gauzatu direnik, eta, joerak joera, oro har puntuen hoskidetasunak aski hertsia izaten jarraitzen du oraindik ere (Lekuona, 1992: 292).

## 6. Ondorioak

Kanpoko homologazio-prozesuaren ondorioak bat baino gehiago izan dira bertsolaritzan. Merezi du banan-banan aztertzea.

### 6.1. Ideologiakeria

Basarriren aurreko bertsolaritza dialektikoa zen batez ere, ahotik ahorako ikamika zuzena zuen oinarri, hitz-gurutzaketa bizia. Elkarrizketa kantatu eta errimatu bat zen, eta kantatua eta errimatua izateak ematen zion elkarrizketa arrunt batek ez zeukan dimentsio bat. Aldiz, Basarriekin batera bertsoa zerbait gehiagorako erabiltzen hasten da. «(Basarrik) bat-batean ere, eta ez bertso paperetan bakarrik, bere edukiak, mundu ikusmoldea eta ideologia transmititzeko erabilgarri zitekeen arma edo arte bezala erakutsi zuen bertsoa» (Egaña, 1999). Horrek erro-erroko aldaketa bat dakar: bertsolariak sortzen ari den obraren gaineko autokontzientzia hartzen du; lehen fokua zuzenean bertsokideari edo entzuleari eragitean jartzen bazen, orain fokua kantatu ahala sortzen doan pieza horretan jartzen du batez ere, eta horretarako erretorikaren baliabideak erabiltzen ditu bertsolariak.

Aldaketa hori zeharo naturalizatu zen Basarri geroztik —horretan asko eragin zuen bertso-saioen pixkanakako espektakularizazioak—, eta egun ez dago bertsolaritza ulertzerik erretorikaren aterkipean ez bada. Orduan hasten dira apurka gero eta arnas luzeagoko ariketak agertzen. Baike, erretorika honezkero

bertsolaritzaren funtsezko ezaugarritzat jo daiteke. Baina, esana dago: pertsuasio erretorikoa erabil daiteke bestea norbere posizioetara ekartzeko, baina baita gizarteko balio, uste eta sinesmen ukiezinak bere horretan uzteko ere —edo indartzeko—. Eta bigarren bide horretatik jotzen duena erraz erortzen da panfletismoan. 1935eko Lehen Bertso Gudu hartan Basarrik euskarari kantatutako bertso hauek adibide egokia dira, kasurako (Iriondo, 2006: 21-22).

Itsasertzetik entzuten dira  
ama euskeraren antsiak;  
ta bai dirala illun, tristiak,  
ene, bai negargarriak!  
Nola kanpoan ala etxean,  
nunai badauzka etsaiak.  
Au oldoztuta malko trinkotan  
betetzen zaizkit begiak.  
Bera iltzen bada ez du askorik  
paltako Euskalerrriak!

Entzun zaidazu, gizona ezko orrek;  
entzun, emakumezkoa:  
ikur aundiak agertutzea  
ez da izango naikoa.  
Ara nolatan mintzatzen zaigun  
gure Jauregi zintzoa:  
—Euskalerrria euskerik gabe  
bai dala erri gaixoa.  
Masti orritsu ederra baiña  
mats-alerik gabekoa!

Galtzen badegu gure mintzaira  
galdua dago guztia.  
Esaidazute, anai-arrebok:  
ez al da lotsagarria?  
Irakasleak bezela daukat  
nik ere aitortu naia.  
Au esanikan joan zitzazgun  
Arana-Goiri aundia:  
—Il naiago det ikusi baiño  
Aberriaren amaia!

Panfletuak ez dira egiten zalantzei erantzuteko, ezpada zalantzak guztiz uxatzeko. Hartzailari bizitza errazten diote, ziurtasun bat eskainiz (De la Nuez, 2017). Erretorikaren baliabideak garaiko ideologia nagusien zerbitzura jartzen direnean, panfleto on bat sortzen da, baina pieza horrek bertso bezala nekez izango du balio estetiko handirik, argudioz moztututa balego ere, sakonean ez lukeelako ezereen zinezko konfrontaziorik bilatuko, ezpada unean uneko ideia hegemonikoak bere horretan iraunaraztea. Horrek bertso-hartzailarengan eragin zuzena du: arriskua dago berezko bertsozalearen ordeaz aretoak panfletozalez betetzeko. 1980ko Koldo Izagirrearen testigantza hau argigarria da:

Ezeren beldurrik gabe, bertsolaritza kezka politiko hutsez jarraitzen duen jende mordoska dagoela esan liteke. Inolako esijentziarik ez duen jendea, bertsolaria bere proiektzio huts bihurtzen duena, hark honek isilean dauzkanak ahokada batean esan ditzan. Hori ez dio axolarik haren pentsakerak eta esan dezakeenak, kosteak kostatzen bere identifikazio bat nahi du, sasipolitikatik atera gabe, bertsolaria gaizki esaka etengabe batetan edukiko luke, honetan ere sakondu gabe, eta herri batekiko konpromisoa baino, ikuspegi politiko batekiko konpromisoa txalotuz.

Egun, nekez irudika daiteke bertso-saioetara mezu politiko konkretuak entzutera doan jende askorik, baina panfletismoaren distortsioak baliagarri izaten jarraitzen du fenomeno batzuk ulertzeko. Urrutira joan gabe, ikusi besterik ez dago bertsoak zer toki betetzen duen oraindik ekitaldi politikoetan.

## 6.2. Jasokeria

Bertsolaritzak dotorea edota jasoia izan behar duela esanez, bertsoari zertan bete ez duen ezaugarri bat ezartzen zaio bortxaz. Bertsolariak ezer egin behar badu, parean daukan entzulearen mailara egokitzen jakin behar baitu, entzule jasoia izan ala ez. Aldiz, jasokerian erortzen da Basarri, eta ahazten zaio bertsoaren funtsezko ezaugarrietako bat zein den: lehen kolpean ulertzeko moduko artefaktu bat izan behar duela.

## 6.3. Gurasokeria

Basarrik sarri aipatzen du nola gertatu izan zizaion ustez bertso ona botatakoan entzuleek txalorik apenas jotzea, eta, alderantziz, inork botatako bertsoak traketsenaren aurrean jendea barre-algaratan lehertzea. Entzuleen heziketa faltari egozten dio hori. Berriz ere, bertsoaren komunikazio-dimentsioa ongi ez ulertzetik egiten da interpretazio hori. Basarriren baieztapenean entzulea elementu pasiboa da, parean daukan bertso-saioa entzutera eta ulertzen saiatzera mugatu behar duena. Hala, eskema horren arabera, bertsolariak entzuleak baino goragoko maila batetik ari dira predikuan, eta entzulea zenbat eta jasoagoa izan, orduan eta hobeto ulertuko ditu oholta gainera esanak. Ulertzen ez baditu, bere gabezien erruz izango da. Ikuspegi horrek ageriko distorsioa eragiten du bertso-gintzan, ahanzten duelako entzule aktiboa ezinbestekoa pieza dela bertso-esperimentuak funtziona dezan. Bertsolariak lortu behar du entzulearengana iristea, eta lortzen ez badu, hobe du bere buruari zertan asmatu ez duen galdetzea, entzulea ezjakintzat jotzea baino.

## 6.4. Pedagogiakeria

«Heziketa» hitza hainbestetan ahotan hartuta, bertsoaren egitekoa alde horretara desbideratzen zuen Basarrik. Herria hezteko helburu duen bertsolaritza-eredu batetik ezin daiteke espero artefaktu pedagogiko eta autoafirmatibo bat baizik. Bertsoari kentzen dio hain bere duen testuinguru komunikatibo berezia, bestela esango ez lirakeenak esateko aukera ematen duen «gune franko» hori, alegia, eta ordezkatzeko du garaiko balio nagusien mezu apologistekin, entzuleek bestela ere —erakundeengandik, agintariengandik eta abar— askotan entzungo zituzten mezuak kantu errimatuan botatzera mugatuz. Hori da entzulea parez parekotzat

hartzetik beheko mailako norbait bezala hartzera igarotzearen paradoxa: garai bateko tabernako testuinguruko astakerien atzeko botere-harremanak, beren gabezia guztiekin, orekatuagoak izan zitezkeela ustezko bertsolaritza berri hark sakonean zituenekin alderatuz gero. Era berean, bertsoa herriaren heziketarako bitarteko gisara ulertzeak eskema erabat elitista bati jarraitzen dio, eta errotik ukatzen du jardunaren autonomia. Ikusten denez, garaiko kultur elitea izan zen bertsolaritzaren autonomia erasotzeko interes gehien zuena.

## 6.5. Zurrunkeria

Garai hartan gertatu zen —Basarriren eta Aitzolen proiektuez harago— bertsolaritzaren baitako espektakularizazio bat. Bertsoa testuinguru berrietara eraman behar horretan, libreko saioez gain bestelako formatuak hasi ziren agertzen. Ordukoa da —1935eko txapelketa ingurukoa— gai-jartzailearen figura, bertsogintzan sekulako iraultza ekarri zuena (Aramendi, 2016). Bat-batean, bertsolariak parean zeukanari zuzenean kantatu beharrean gai-jartzaile batek jarritako gaiak hartu behar izan zituen hizpide. Noski, gai-jartzaileak jar zitzakeen bertsolariak uneari eta tokiari lotutako egoeretan, baina baita testuinguru erabat desberdinetan ere. Ordura arte existitzen ez zen kanpo-elementu haren tutoretzapean, distantziamendu bat gertatzen da bertsolariaren eta kantatzen duen bertsoaren artean. Fikzioa sartzen da tartean, bertsolariak halakoren eta bestelakoren ahotik kantatu behar du, baina fikzio hori solaserako abiapuntu huts da, ez du bizitza propiorik hartzen. «Jakin behar duzu maskara batekin ari zarela, paperaren maskara, baina kontziente izan behar duzu maskara hori gardena dela eta horren atzean dagoen pertsona ere ikusi egiten duela publikoak» (Egaña, 2017). Maskara gardenaren auziak zuzenean eragiten dio bertsoaren bat-batekotasunari: fikziozko egoeretatik kantatzeak bertsolariari arintzen dio, neurri batean, kantatzen ari den testuinguruarekiko menpekotasuna —tematika hutsari dagokionez bada ere—. Gai-jartzailearen figura ulertzeko moduak ere ez dira beti berdinak izan. Ikusi, bestela, Txirritak zer kantatu zuen 1935eko txapelketa hartan «euskara» gaitzat jarri ziotenean. Txirritarentzat gaia abiapuntu huts zen berak testuinguru hartan kantatu nahi zuena kantatzeko. Ez zen unetik eta tokitik abstraitu, ez zion zentzurik topatzen euskarari buruzko orokorkeria bat kantatzeari. Harentzat, bertsoak han eta orduan zeukan zentzua, parean zeuzkan elementuei erreferentzia eginez baizik ezin zuen kantatu. Eta Aitzol seinatu zuen, eta eztezez jositako esaldi bat eskaini zion. Aldiz, Basarriren belaunaldiaz geroztik gaiak ez dira ulertzen abiapuntu soil bezala, zurrunki jorratu beharreko zerbait bezala baizik. Bertsoaren «hemen eta orain» alderdia kamusten du, neurri batean, zurrunkeria horrek.

## 6.6. Utilitarismoa

Baina batez ere utilitarismoa da Aitzolen proiektu nazionalak bertsolaritzari eragindako distortsiorik sakonena, diziplinaren autonomiaren aurka zuzenean jotzen duena. Bertsolaritza diziplina gisara berpiztu beharrean, euskararen eta euskal izpiritu baten zerbitzura jarrita, bere baitan gorde zezakeen potentzial estetiko oro suntsitu zuen bete-betean. Hori bai, kultur forma berri baten diskurtsoz jantzi zuten operazioa. Hori guztia testuinguru jakin batean gertatu zen, noski: gerraurrea zen,

eta garaiko egoera politikoan euskararekin eta euskaltasunarekin zerikusia zeukan oro zanpatzen zen —Aitzol bera fusilatu egin zuten 1936ko urriaren 17an—. Egoera haren latza gorabehera, ukaezina da operazio hura herri-kulturako jardun bat eliteentzat gustagarri bilakatzeko obsesio batek gidatua izan zela, kultura-proiektu nazional baten menpeko tresna gisara ulertuta, betiere. Bertsolaritza ordura arteko testuingurutik erauzi nahi izan zuten, herriak satira kolektiborako erabiltzen zuen tresna garaiko pentsaera zuzenaren zerbitzura jarritz. Horrek, azaldu den bezala, errotik astindu zituen bertsolaritzaren joko-arauak, idatzizko kulturaren esparru heteronomora desplazaziz. Urria da operazio haren aurkako erresistentzia dokumentatua, garaiko kultur eliteek —eta, beraz, garaia dokumentatzeko boterea zeukaten bakarrek— babestutako mugimendua izan zenez. Sintomatikoa da, ordea, nola operazio hura gidatu zutenen aldean beste batzuen aldeko atxikimendua agertu zuen herri xeheak, erakutsiz bertsolaritzaren kodeak nekez egin zezakeela bat mezu moralizatzaileak igortze hutsarekin. Izagirrek (2016: 10) galdera bat planteatzen du:

Inkultua ote zen Txirrita? Zer kultura berri zekarren Basarrik? Euskaraz eta erdaraz irakurtzen zekienarena. Bertsolariari kultura eskatzen zaio, bertsoa bera kultur forma autonomoa ez balitz bezala. Eskultura egitea eskatzen zaio kuxtak eta argizaiolak lantzen dituen artisauari. Bertsoa ez da bertsoetik kanpo edo bertsoaz gain dagokeen kultura transmititzeko tresna, bertsoa molde poetiko bat da, herri poesia, bere lege propioak eta bere helburu zehatzak dauzkana.

Paradoxikoa da poesiarekin alderatuta bertsolaritzarekin gertatu zena. XX. mendearen hasierako poetek —Lizardi buru— nazionalismoaren interesak atzetik izanik, hari iskin egin eta poesiaren autonomiaren alde egin zuten sutsuki —kiositate bezala, bestalde, Lizardik (1933) idatzita dauka bera Txirritaren hizkeraren zalea zela—. Aldiz, bertsolaritzak ez zuen erresistentziarik jarri. Zergatik? Interpretazioak askotarikoak izan daitezke. XX. mendearen hasierako bertsolaritza aski jardun beregaina zen, ez zuen bere autonomia arriskuan egon zitekeenik zalantzan ere jartzen. Aldiz, orduan hasitako autonomiaren galera gaurdaino luzatzen da, eta, egun, poesiaren aldean, bertsolaritza da autonomia aldarrikatzeko beharrean dena. Ikusi besterik ez dago oraindik ere txapelketen funtzioa justifikatzeko nola erabiltzen den argudio utilitarista askoa: euskara sustatzen dutela, euskal komunitatea trinkotzen dutela, eta abar. Bertsolaritzaren autonomiaren bilaketak tankera horretako argudioak zalantzan jarri behar ditu, erakutsiz logika desberdinak dituela bilaketa estetikoak eta komunitategintzak. Bestela esanda, une batzuetan euskararentzat desiragarri dena kaltegarri izan daitekeela bertsolaritzarentzat.

## 7. Bibliografia

- Aldekoa, I. (2008): *Euskal literaturaren historia*, Erein.
- Aramendi, M. (2016): *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideen bilakaera eta bertsogintzaren zenbait aje*, HABE.
- Aranbarri, I. (1999): «Bertso gudua», *Argia*, <<https://www.argia.eus/argia-astekaria/1734/bertso-gudua>> (1999-10-24).
- Aresti, G. (1963): «Nire oficinatik: Basarri bertsolariari (jarraipena)», *Zeruko Argia*.
- , (1966): «La sidrería y el convento [O sobre cuál es la mejor escuela para un bersolari]», *Hierro*.

- Ariztimuño, J. (1987): *Obras completas = Idazlan guztiak*, Erein.
- Basarri (1992): *Nere bordatxotik (Bertso-bilduma)*, Auspoa.
- De la Nuez, I. (2017): «Los ensayos mueren, el panfleto es inmortal», *Iván de la Nuez*, <<http://www.ivandelanuez.org/?p=3227>> (2017-08-27).
- Dorronsoró, J. & Lekuona, J.M. (1987): «Bertsolaritza modernoaren bideak», *Jakin*, <<https://www.jakin.eus/show/06c8331c68b8c9bbdc6a5f371738c86b1d0d269f>>.
- Egaña, A. (1999): «Bat-batekotasunari edukia eman zion bertsolaria zen Basarri», *El País*, <[https://elpais.com/diario/1999/11/12/paisvasco/942439212\\_850215.html](https://elpais.com/diario/1999/11/12/paisvasco/942439212_850215.html)> (1999-11-12).
- , (2017): «Orain sekulako bertigoa emango lidake txapelketaren erakusleihu horretan kantatzeak», *Gaur* 8, <[https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8\\_2017-11-18-06-00/hemeroteca\\_articles/orain-sekulako-bertigoa-emango-lidake-txapelketaren-erakusleihu-horretan-jartzeak](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2017-11-18-06-00/hemeroteca_articles/orain-sekulako-bertigoa-emango-lidake-txapelketaren-erakusleihu-horretan-jartzeak)> (2017-11-18).
- Egaña, A. & Sarasua, J. (1998): *Zozoak beleari*, Alberdania.
- Eizmendi, I. (1935): *Bertsolariak eman diote*, <<https://armiarma.eus/gordailua/ZubimendiBertsolariGuduak3.htm>>.
- , (1963): «En defensa propia», *La Voz de España*, 9.
- , (1984): *Bertsolaritzari buruz*, Auspoa.
- Estornés Lasa, B. (2019): «Euskal oleriti eguna», *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, <<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/euskal-oleriti-eguna/ar-46127/>>.
- Garzia, Joxerra (2000): *Historia de la literatura vasca* (P. Urkizu, arg.; 1. ed.), Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- Garzia, Juan (1997): *Txirritaren baratztea Norteko trenbidetik*, Alberdania.
- Iriondo, J. (2006): *Basarri*, Auspoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia = Diputación Foral de Gipuzkoa, Dirección.
- Izagirre, K. (2019): *Bertsoaren harria. Basarri*, 1-25.
- , (2016): *Txirritaren erreminta batzuk*, 1-27.
- Iztueta, P. (2003): *Orixe saioçilea*, Utriusque Vasconiae.
- Lasa, X. (2008): *Begi kolpea: Teodoro Hernandezorenaren biografia*, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
- Lekuona, Joan Mari (1992): «Basarriren bertsolari proiektua», *Euskaltzaindia, Luis Villasanteri omenaldia*.
- , (1982): *Ahozko euskal literatura*, Erein.
- Lizardi, X. (1933-02-12): «Gure bideko mugarriak», *Argia*, <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=3523>>.
- Lujanbio, J.M. (1935): *Larogei urte gaiñean ditut*, Yakintza.
- Mujika, L.M. (1996-04-26): «Lizardi eta paisaiaren trataera», *Euskera*, 41, 21-30.
- Paia, F. (2011-07-14): «Zelan eragiten dio txapelketak sormenari? Epaileak kalitate ziurtagiri?», *Bertsolari Aldizkaria*, 82, 92-129.
- Perurena, P. (1991a): «Basarri-rekin buruz buru», *Mazantini*, 1, <<https://andima.armiarma.eus/maza/maza01.htm>>.
- , (1991b): «Basarri-rekin saiheska bertsolaritzari buruz», *Mazantini*, 1, <<https://andima.armiarma.eus/maza/maza0105.htm>>.
- Sarriugarte, I. (2010): «Bertsolari Txapelketa Nagusiak 75 urte: P. Abarrategi eta E. Uriarte Poxpolin Antzokian», *Karmel Aldizkaria*, 270(2010-2), 3-41.
- Segurola, I. (2013): «Zubeldia», *31 eskutik*, <<http://31eskutik.eizie.eus/2013/10/10/zubeldia/>> (2013-10-10).
- Valverde, A. (1963): «Basarri y Uztapide», *El Diario Vasco*, 16.
- Zubimendi, J. (1936): *Bertsolari-guduak*, Euskaltzaleak, <<https://armiarma.eus/gordailua/ZubimendiBertsolariGuduak.htm>>.

———, (2002): *Bertso minez: Idazle baten gerla eta bertso oroitzapenak (Kanbo, 1939)*, Alberdania.  
Zulaika, J. (2003): *Bertsolaritza bi saio*, Bertsolari Liburuak.

